2026-11-20 OSTIRALA
1.771. ZENBAKIA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS

txintxarri

KIROLA

Euritan ezin trebeago gidatuta amaitu du denboraldia Aitor Manso pilotuak / 12



Gizarte inklusioaren bidea egiten

Eragile, erakunde eta herritar ugariren artean aurrera eraman dute II. Jardunaldi Inklusiboa / 13

KULTURA

Hango eta hemengo geografiak eta ohiturak erakutsi dituzte dantzaren bitartez / 2



TXINTXARRI

EKONOMIA

Zazpi geldialdiko bidea dastatzeko aukera izango dute herritarrek asteburuan, pintxoz pintxo / 4

EUSKARA

Euskarak bizirauteko, eskualdeko eragileek esan dute "funtsezkoa" dela familietan transmisioa egitea / 8-9



KULTURA

Dantzaz erakutsitako geografiak

Dantza topaketa prestatu aurrera eraman du Erketz EDT taldeak, eta ez bakarrik: Donostiako Trebeska eta Alacanteko Villajoyosako El Centenar Grup de Danses gonbidatu ditu Manuel Lekuona kultur etxean emanaldia eskaintzera

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Txandaka aritu ziren dantzan hiru taldeak, larunbatean antolatutako dantza topaketan. Hasteko, hitzorduaren anfitrioia oholtzaratu zen. Jarraian, Egiako Trebeska; Alacanteko El Centenar Grup de Danses, ondoren. Segidan, lasarteoriatarrak agertu ziren berriz eszenatokian, eta valentziarrek amaitu zuten emankizunarekin. Ordubete eta erdi iraun zuen guztira ikuskizunak eta kasik beterik ziren Manuel Lekuona kultur etxeko eserleku guztiak.

Mugimenduaz baliaturik, euren kulturaren aberastasuna erakutsi zuten, euren dantzaldietan. Horretarako, traje tradizionalak ere erabili zituzten. Trebeska eta Erketz EDTeren kasuan, Euskal Herritik bidaiatu zuten orpoetan eta puntutetan, bertako zenbait festa eta dantza propio erakustearren. Alacantekoek, aldiz, euren erkidegoa aurkeztu zieten lasarteoriatarrei, besteak beste, joten bidez. Hori ez ezik, emanaldiarekin hasi aurretiko azalpenak eman zituzten gonbidatuek Mediterraneo aldeko txokoak gertuagotik ezagutarazteko.

Musikari dagokionez, garrantzi handia izan zuten doinuek emanaldi honetan. Izan ere, kulturaren aberastasuna melodiatik ere adierazi zuten. Eginkizun horretan, musikari propioak izan zituzten bidelagun: Erketz EDTeko artistek euren dantzariekin eta Egiakoekin batera jo zuten, baina Valentziako taldeak bere banda ekarri zuen. Kuriosoa izan zen bi taldeen arteko aldea erabilitako instrumentuen bidez ikustea.

Gogotik gozatu zuen publikoak emanaldiarekin, eta dantzaldi bakoitzaren osteko txalo zaparradekin erakutsi zuen hori. Ikuskizunarekin amaitzeko, Ainara Elicechea Kultur zinegotziak eta Lasarte-Oriako alkateak oroigarri bana eman zieten dantza talde gonbidatuei. Talde argazkia ateratzearekin batera amaitu zen hitzordua.



Lasarteoriatarrak, oholtzan. TXINTXARRI



Erketz EDTko dantzariak bitan oholtzaratu ziren. TXINTXARRI



Donostiako Egia auzotik etorri zen Trebeska Dantza Taldea. TXINTXARRI



El Centenar Grup de Danses taldeko hiru dantzari. TXINTXARRI



Alacant-eko bi dantzari. TXINTXARRI



Dantza topaketarekin amaitu aurretik, argazkia atera zuten elkarrekin batera hiru dantza taldeek. TXINTXARRI



Udal ordezkariekin batera aurkeztu dute jaialdiaren egitaraua Jalgune elkarteko kideek. TXINTXARRI

GIZARTEA

Hoztasunak ez du tokirik izango Jalguneko kideek kultur etxean egingo duten jaialdian

Hilaren 28an aurrera eramango dute ekimena, larunbatarekin, 18:00etan hasita

Txintxarri

Musika, dantza eta parte hartzea uztartuko ditu Jalguneren Jaialdiak. Aurtengoa XX. edizioa izango da eta *De todo menos indiferentes. Kanpoan hotz, Lasarte-Orian bero!* lelopean ospatuko dute, hilaren 28an, Manuel Lekuona Kultur Etxean, Dibertsitate Funtzionala duten Pertsonen Egunaren bueltan (abenduak 3a). Beatriz Egizabal eta Cesar Marcos arituko dira aurkezle lanetan, ohiko legez.

Ikuskizunaren nondik norakoak egun handirako gorde nahi izan dituzten arren, aurreratu dute lagun askorekin partekatuko dutela oholtza; besteak beste, Semblante Rociero abesbatzarekin, Ostadarreko Ipar Martxako taldearekin eta Euskararen Maratoieko zortzikotearekin. Bertaratu nahi dutenek aldez aurretik eskatu beharko dituzte gonbidapenak, auditorioko atarian. Horren harira, ospakizun bereziarekin bat egitera gonbidatu dituzte herritar guztiak Jalguneko kideek, sarrera irekia eta doakoa izango baita denentzat.

Leloa baino gehiago

Arestian esan bezala, *De todo menos indiferentes. Kanpoan hotz, Lasarte-Orian bero!* izango da Jalguneren XX. jaialdiko lema. Azaldu dutenez, euren izaera, aldarria eta, batez ere, taldearekin helarazi nahi duten mezua ondo jasotzen duelako aukeratu dute esaldi hori. Izan ere, argi dute ez direla "indiferenteak", hori izan baitute helburu hasieratik, hots, "aniztasuna ikusaraztea eta desgaitasuna duten pertsonek gizartean dagokien lekua izatea". Harro gaineratu dute "neurri handi batean" xede hori lortu dutela "aukera faltari" eta "hoztasunari" Lasarte-Orian kontrakoarekin erantzutea lortu dutelako: "Berotasunarekin, gertutasunarekin, konpromisoarekin eta parte hartzearekin".

Lerro hauen bitartez TXINTXARRI aldizkariko erredakzioko langileok eskerrak ematen dizkiegu Jalgune elkarteko lagunei, ekimena iragartzeko kartela egiteko eskua luzatu digutelako aurten ere, gure lanarengan konfiantza erakutsita. Hori horrela, urri amaieran elkartu ginen beraiekin eta argazki saio ederra egin bitartean primeran pasa genuen! Gustukoen zituzten irudiak aukeratu eta gero, kartela diseinatu eta lau haizetara zabaltzen ari gara egunotan.



Ibilgailu klasikoen bigarren topaketa izango da igande honetakoa, hilak 22. TXINTXARRI

GIZARTEA

Motorrak pizteko gogotsu daude ibilgailu klasikoen jabeak

Udalarekin batera prestatu dute hilaren 22rako egitaraua. Andatza plaza izango da bilgune nagusia, baina ez bakarra

Txintxarri

"Motorra, historia, entretenimendua eta elkarbizitza" uztartzen dituen jarduera aurkeztu dute ClasicoX elkarteko kideek eta udal ordezkariek, igande honetarako (hilak 22) prestatu duten guztiaren topaleku nagusi izango den Andatza plazan. Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok aipatu eragile horretako herritarren lana goraipatu du: "Ahalegin izugarria egin dute udalerri osoari irekitako ekimena prestatzeko. Argi dugu horrelako lana babesten jarraituko dugula, Lasarte-Oriako eskaintza aberasten duelako eta herria bera biziberritzen duelako".

Jarraian, antolatu dituzten ekimenak azaldu dituzte ClasicoXeko ordezkariek. 09:00etatik aurrera hasiko dira ibilgailu klasikoen jabeei ongietorria egiten eta Andatza plazatik metro batzuetara dagoen Aitonak okindegian gosaltzeko txartelak banatzen. Gidariak enparantza horretara iritsi ahala, autoak zein motorrak non jarri esango diete eta erakusketa antolatuko dute, 12:30ak arte.

Ordurako, Scalextric txapelketaz gozatzen ariko dira parte hartuko duten haurrak nahiz helduak. 10:00etatik 14:30era arte jarriko dituzte joko mitiko horren zirkuituak martxan. Goizak aurrera egin ahala jarduera gehiago egingo dituzte. Ibilgailuen jabeek irteera egingo dute 12:30ean eta Oriara joango dira, garai batean zirkuitua zegoen eremura. Itzultzen direnean Andatza tabernan hartuko dute bermuta eta banatuko dituzte sariak. Ondoren, ondoan dagoen Udaberri elkartean bapo bazkalduko dute.





Ekimena iragartzeko afixak eskuetan hartuta atera zuten talde argazkia. TXINTXARRI



Buenetxea tabernako sukaldaria mokadua prestatzen. TXINTXARRI

EKONOMIA

Mokadu goxo bezain ikusgarriak prestatu dituzte XII. Pintxo Biderako

Zazpi establezimenduk hartuko dute parte aurtengo edizioan eta horietako bakoitzak mokadu bat eskainiko die bezeroei. Hilaren 20an, 21ean eta 22an izango dute aukera herritarrek horiek dastatu eta baloratzeko aukera



Fernando Alonso Carabel izango da epaimahai profesionala. TXINTXARRI

Txintxarri

Gastronomia hitzordua iragarri du Aterpea merkatarien elkarteak datorren astebururako, hilaren 20, 21 eta 22rako: XII. Pintxo Bidea aurrera eramango du. Ostiralean, 19:00etatik 21:00etara izango dute mokaduak jateko aukera bezeroek, eta larunbatean, aldiz, eguerdian eta arratsaldeko ordutegi berean jarraituko du. Igandean, goizean soilik eskainiko dituzte pintxoak. Horietako bakoitzaren truk hiru euro ordaindu beharko dituzte kontsumitzaileek.

Horren guztiaren berri eman dute gaur aipatu elkarteko bazkide eta ordezkariek, Semblante Andaluz elkartean egin duten agerraldian. Hitzordu hori baliatu dute ekimenerako prestatu dituzten jakiak erakusteko, baina ez horretarako bakarrik, izan ere, izan da horiek probatzeko aukera izan duenik ere.

Askotariko osagaiak erabilita kozinatu dituzte mokaduak, ohiko sukaldaritzan oinarritutako errezetek eta zapore nahiz testura desberdinak uztartzen dituzten proposamenek erakutsi dituzte.

Ondoko hauek dira, banan-banan

· **Herriko Etxea jatetxea:** Perretxiko gisatua, arrautza potxatuarekin, urdaiazpiko kurruskariarekin eta lasto erako patata frijituekin.

·**Arkupe taberna:** Baserriko oilaskoaren kaneloia, boilurrarekin eta foiearekin.

· **Usoak taberna:** Pedro Ximénez erara prestatutako masail haragiz betetako briotxea, patata eta Idiazabal gaztarekin egindako kremaren gainean, hirugihar kurruskariarekin.

· **Buenetxea kafetegi-taberna:** La Perla, bieiraz egindako kroketa, ganba eta zitrikoen saltsa holandarrarekin eta wakame algarekin.

· **Oria-Txiki taberna:** Pani Puri Mar y Tierra, bakailao brandadarekin eta ardo beltzean prestatutako buztan haragiaren krema finarekin.

· **Lasarte taberna:** Txahal masailaz betetako kalabaza kurruskaria, fruitu gorrien erredukzioarekin eta batata txips zein sesamo haziekin.

· **Arima GastroTaberna:** Txahal masailaz, perretxikoz eta piparraz betetako pikillo piperra, grana padano gazta kurruskariarekin, errukula frijituarekin eta bere saltsekin.

Bi sari: epaimahai profesionalarena eta herritarrena

Urtero lez, aurten ere bi pintxo sarituko dira; alde batetik epaimahai profesionalaren saria banatuko dute, eta bestetik, berriz, herriatarren gustukoena.

Epaimahai profesionalarena nork jasoko duen Fernando Alonso Carabel sukaldari profesionalak erabakiko du. Bere esperientzian eta irizpide gastronomikoan oinarrituta, parte hartzen duten zazpi proposamenak baloratu eta kategoria honetako pintxo irabazlea hautatuko du. Ibilbide profesional zabala du Alonsok: *Pesadilla en la Cocina* telebista saioan parte hartu du, Rational Cáceres 2014 saria irabazi zuen eta sukaldaritza sortzaileko unibertsitate irakasle gisa ere jardun du.

Herritarrena, berriz, Lasarte-Oriako gastronomia elkarteen eta pintxo bidean parte hartzen duten bezeroen balorazio bateratuaren bidez erabakiko da. Gastronomia elkarteetako ordezkariek proposamenak dastatu eta baloratuko dituzte, eta herritarrek ere euren iritzia emateko aukera izango dute, pintxo bakoitza 1etik 5era baloratuz. Horretarako, pintxoarekin batera jasoko duten puntuazio txartela bete beharko dute. Parte hartzea baliozkoa izan dadin, emandako puntuazioa, izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi beharko dituzte, eta txartela establezimenduan bertan horretarako jarritako kutxan utzi.

Parte hartzaileentzat ere sariak

Pintxo bidean parte hartzen dutenen artean 500 euro zozkatuko dituzte. Aterpeako establezimenduetan erabiltzeko erosketa bonuak izango direla iragarri dute merkatarien elkarteko ordezkariek, eta esan, guztira, lau erosketa txartela izango direla. Horietako bat 200 eurokoa izango da, eta gainerako hirurak, aldiz, 100 eurokoak. Horien bitartez herritarren parte hartzea sustatzea eta herriko merkataritzan kontsumoa bultzatu nahi du merkatarien elkarteak.

Udaleko Sozioekonomia saileko zinegotzi Nuria Fernandez Castrillo ere agerraldian izan da, eta honako adierazpenak egin ditu: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Aterpeari urtez urte horrelako ekimenak antolatzeko egiten duen lan eta ahaleginagatik. Pintxo Bideak herriko kaleak girotzen ditu, herritarrak elkartzeko aukera eskaintzen du eta gure ostalaritza eta tokiko ekonomia indartzen laguntzen du". Halaber, parte hartuko duten zazpi ostalaritza establezimenduen inplikazioa ere eskertu du: "Pintxo bakoitzaren atzean ordu askotako lana, ahalegina, sormena eta ilusioa daude. Horregatik, bereziki eskertu nahi dugu ostalariek edizio honetan jarri duten dedikazioa eta herritarrei proposamen bereziak eskaintzeko egin duten ahalegina".

Amaitzeko, herritarrei dei egin die egitasmoarekin bat egin eta parte har dezaten. Mokaduak dastatzera, lehiaketan parte hartzera eta herriko ostalaritzaren eskaintza gastronomikoaz gozatzera gonbidatu ditu.

Lasarte - Oria 2026

Azaroaren 20tik 22ra

XII Aterpea Pintxo Bidea

Ostirala 19:00etatik 21:00etara
Larunbata eguerdian eta 19:00etatik 21:00etara
Igande eguerdian

Pintxo Aterpea 3,00€



RESTAURANTE HERRIKO ETXEA Perretxiko gisatua, arrautza potxatuarekin, urdaiazpiko kurruskariarekin eta lasto erako patata frijituekin



ARKUPE TABERNA
Baserriko oilaskoaren kaneloia, boilurrarekin eta foiearekin.



BAR USOAK
Pedro Ximénez erara prestatutako masail-haragiz betetako briotxea, patata eta Idiazabal gaztaren kremaren gainean, hirugihar kurruskariarekin.

Parte hartu!

500€

500€ zozketatuko ditugu erosketa-bonoetan



CAFÉ-BAR BUENETXEA
La Perla, bieiraz egindako kroketa, ganba eta zitrikoen saltsa holandarrarekin eta wakame algarekin



BAR LASARTE
Txahal-masailaz betetako kalabaza kurruskaria, fruitu gorrien erredukzioarekin eta batata txipsekin, sesamo-haziekin amaituta.



ORIA-TXIKI TABERNA
Pani Puri Mar y Tierra, bakailao-brandadarekin eta ardo beltzean prestatutako buztan-haragiaren krema finarekin



ARIMA GASTROTABERNA
Txahal-masailaz, perretxikoz eta piparraz betetako pikillo piperra, grana padano gazta kurruskariarekin, errukula frijituarekin eta bere saltsekin.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

aterpea

KULTURA

Hiru egitasmo aurrera eramango dituzte Imanol Lizardi Bertso Astearen barruan

Hilaren 27an eta abenduaren 2an eta 3an izango dira hitzorduak



Afixa iragarlea. TXINTXARRI

Txintxarri

Bertsolaritza herritarrei hurbildu eta gazteen artean euskal kulturarekiko interesa sustatu asmoz antolatu dute Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalak eta Earra bertso eskolak ekimena. Bertso asteak Lasarte-Oriako kultura eta hezkuntza jardueretan protagonismo berezia hartu nahi duela azpimarratu dute antolatzaileek, eta gaineratu, herriko haur, gazte eta familiei euskarazko sormenaren eta adierazpenaren indarra transmititu nahi dietela.

Hala, oroitarazi dute 2024ko udazkenean aurrera eraman zutela lehen aldiz Imanol Lizardi bertsolari gazteentzako sariketa. Iaz jarraipena eman zioten eta aurten hirugarren edizioa prestatu dute, beste jarduera batzuekin batera. Gainera, Earra! Bertso Eskolak 35 urte betetzen dituela ere ospatu nahi dute eta hori horrela, hiru ekimen deitu dituzte. Saio guztiak irekiak eta doakoak izango direla ere nabarmendu dute ordezkariek.

Sariketa eta bi emanaldi

Hilaren 27an, ostiralarekin, egingo dute Imanol Lizardi Bertsolari Gazteen III. Sariketa. 18:00etan hasiko da, eta Mirentxun aurrera eramango dute. Antolatzaileek esan dute 2024an abiatutako ekimenari jarraipena eman eta etorkizunean plazak beteko dituzten bertsolari gazteen talentua ezagutzeko aukera paregabea izango dela hitzordu hori. Halaber, nabarmendu dute bertsolariak gonbidatzerakoan lurraldetasuna eta genero ikuspegia kontutan izan dituztela. Gauzak horrela, hiru neska eta hiru mutil ariko dira; hiru gipuzkoar, bi bizkaitar eta arabar bat.

Abenduaren 2an, berriz, Landaberri-Garaikoetxeako eta Sasoeta-Zumaburuko LH5 eta LH-6ko ikasleentzako emanaldia iragarri dute. Unai Muñoak gidatuko du emanaldia eta Andoni Rekondo eta Eli Pagola arituko dira bertsotan, ikasleak gai-jartzaile izango dituen saio interaktibo eta dibertigarria. Ikastetxeetan lanketa egingo dute saioaren aurreko egunetan eta gela bakoitzak ariketa bat prestatuko du bertsolariek kantuan egin dezaten. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da ekimen hori, 15:15etik 16:15era.

Hirugarren eta azken jarduera, berriz, hurrengo egunean izango da: abenduaren 3an. Aurreko urtetako bertso-poteoaren ordez, Earra Bertso Eskolako bertsolari gazteek beste formatu batean eskainiko duten saioa izango da Jalgi Kafe Antzokian aurrera eramango dutena; 18:30ean izango da hori. Era berean, bertso eskolaren 35 urteko ibilbidea irudietan laburbilduko duen argazki erakuseketa ere ikusgai jarriko dutela nabarmendu dute antolatzaileek.

KULTURA

Zaindariaren omenezko kontzertua




TXINTXARRI

Santa Zezilia eguna igandean izango den arren, hilak 22, bost egun lehenago egin zuten musikarien zaindariaren omenezko kontzertua, kultur etxean. Askotariko instrumentuekin oholtzaratu ziren Udal Musika Eskolakoikasleak. Besteak beste; pianoa, biolina, gitarra, akordeoia edota kaxa. Ahotsarekin musika sortzera animatu diren haur askok ere parte hartu zuten. Amaitu ostean mokadutxoa jan zuten guztiek.

GIZARTEA

Su hartu du Zapategi kaleko etxebizitzetako batek

Hilaren 18an gertatu zen ezbeharra, 10:40ak aldera su hartu zuenean Zapategi kaleko 7. zenbakiko etxebizitza batek. Bizilagunek eman zuten abisua eta minutu gutxitara etorri ziren suhiltzaileak, garrak itzaltzera. Zorionez, inor ez zen larriki zauritu, batzuk artatu zituzten arren.



TXINTXARRI

GIZARTEA

Primeran pasa dute 1963an jaiotako herritarrek

Urteroko hitzordua berritu zuten 1963an jaiotako dozenaka lasarteoriatarrek hilaren 14an, larunbatarekin. Afaltzeko elkartu ziren eta bapo jan eta edan zuten Abend jatetxean. Urdaiazpiko iberikoa, marisko entsalada epela eta labean erretako zapoa jan zituzten. Afalostean festa ederra egin zutela eta primeran pasa zutela kontatu diote TXINTXARRI aldizkariari. Datorren urtean errepikatzeko asmoa dutela ere aurreratu zuten. Osasunez egin dezatela hori!



IONE ARTOLA



Emakumeen Etxean aurrera eraman dute hil honetako literatura solasaldia. TXINTXARRI

KULTURA

Erraz irakurtzen da eta emozioak eragiten dituen puntuaz mintzatu dira

Itxaso Martin Zapirainen 'Puntobobo' liburua izan dute hizpide Irakurle Txokoko kideek hil honetako saioan. Azaroaren 25eko egitarauaren barruan aurrera eraman dute hitzordua. Saio goxo bezain emankorra izan da

Txintxarri

Emakumeen Etxean aurrera eraman du Irakurle Txokoak hil honetako solasaldia, hain zuzen ere, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren kari udalak antolatu duen egitarauaren barruan egin dutelako saioa. Itxaso Martin Zapirain idazlea gonbidatu du oraingoan, eta berak idatzitako *Puntobobo* eleberria izan dute hizpide taldekideek

11 kapitulutan banatutako lana da, eta bi planotan, denbora lerrotan, orainaldian eta iraganean, kontatutako istorioa irakur dezakete irakurleek. Orainaldian kontatuta dagoen zatian, Joane eta Malen ama-alaben arteko elkarrizketaren berri izango dute irakurleek. Zati horrek ez du narratzailerik, sortzaileak nahita hautu hori eginda, hain zuzen ere, fokua bi protagonista horiengan jarri asmoz, eta irakurleak jasoko duena bi horiengandik ez beste inorengandik jaso dezan. Iraganean kontatutako kapituluak, berriz, narratzaile batek kontatzen ditu eta gertatzen denak hartzen du indar handiagoa esaten denak baino.

Idazleak bere tesian egindako lanetik abiatuta ondu du *Puntobobo*.

Hausnarketa erronda

Ohitura duten moduan ekin diote saioari irakurle taldeko kideek. Idazlearen aurkezpen labur bat egin du lehenik Aintzane Usandizagak , eta jarraian, lanaren gaineko iritziak, hausnarketak, eta bestelako kontuak partekatzeko tarte bat ireki dute.

Banan-banan hartu dute hitza, eta denek ala denek adierazi dute gustuko izan dutela, baina, hizlari bakoitzak bere hausnarketa ere plazaratu du.

Hitza hartu duen lehen taldekideak adierazi du oraindik orain liburua osorik irakurri ez duen arren, "erabat engantxatuta" dagoela, eta hitz horiei jarriki, beste kide batek azaldu du sekulakoa iruditu zaiola amaiera.

Horren harira, Martinek berak hitza hartu eta esan du kontakizunaren amaiera izan zela lanaren abiapuntua, hau da, pasarte hori zeukala garbi, eta hortik abiatuta joan zela kontakizuna josten, idazten. Hala, gaineratu du, "bi amaierak", baina liburuan agertu duena ez besteak ez zuela zentzurik kontakizun horretan, eta horregatik erabaki zuela irakur daitekeen horren alde egitea: "40 urtez isilik mantendutako zerbait ordubetean askatzea ez zihoan liburuarekin. Ni oso pozik nago amaiera horrekin". Gaineratu du "atea zabalik" uzten duen bukaera bat dela.

Kontakizuna "gogorra" egin zaiola mahaigaineratu duenik ere izan da. Horri dagokionez, idazleak baieztatu du gaia gogorra dela, baina helburua dela gogortasun hori erakustearekin batera, goxotasuna ere transmititzea.

Hizkuntza "minimora" eramatearen zergatia

Hizkuntza aldetik ahaleginik eskatzen ez duen lana dela azaleratu du beste kide batek, baina hori esatearekin batera, azaldu du bestelako karga bat eragiten duela; hori adierazi bitartean eskuarekin sabela ukitu du: "Hizkuntzari dagokionean depuratua dago, bazoaz, baina aurrera egin ahala, gero eta karga handiagoa sentitzen duzu, motxila doa betetzen, neurri batean barrena mugitzen dizulako".

Horren harira idazleak aipatu du hori ere hala erabakita egin duela: "Hizkuntzak eramaten gaitu burura, oso mentala den parte bat da, eta tripetara heltzeko modu bat zan intelektualitatea alde batera uztea. Irakurketak ahalegin kognitibo bat eskatzen badizu, gehiago aldentzen zitu emozioetatik".

Luze eta zabal solastatu dira ordu eta erdi iraun duen tartean. Idazleak iragarri du Tantaka Teatroa konpainiak antzerkira eramango duela bere lana.

Gaiaren gogortasuna erakustearekin batera goxotasuna transmititzea izan da helburuetako bat

KULTURA


'Esadazu gezurra' eleberria argitaratu du Aintzane Usandizagak

Txintxarri

Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarrak bere lehen eleberria argitaratu du: *Esadazu gezurra*. Susa argitaletxearekin kaleratu berri du lan hori eta hilaren 18an aurkeztu zuen Donostiako Liburutegi Zaharrean.

Hain zuzen ere, hiri horretan abiatzen da kontakizuna, iluntze batean, egileak eta argitaletxeak liburuaren sinopsian jaso dutenez. Itsasoan igerialdia egin ostean, autoko giltzak barruan ahaztu dituela ohartu, eta buruz dakien zenbaki bakarrera deitu du Luxiak: Laida dago bestaldean, aspalditik harremanik ez duen umetako laguna. Bila joatea erabakiko du hark, baina iraganak blaituko du orduan autoa, eta helmugaraino iritsi ala buelta erdia egin ebazten egingo du bidea. Bitartean, tamariz okertu baten azpian zain dago Luxia, bainujantzi hutsean, gero eta hoztuago eta buila laranja bat besoen artean.

Aurkezpen agerraldian Leire Lopez de Ziluaga editoreak azaldu zuenez, "egia eta gezurra kategoriak zalantzan jartzeko asmoa" du Usandizagak idatzitako liburuak. Herritarrak berak ahots goran irakurri zuen pasarteak berresten du hori: "Bat. Biok baldin badakigu. Bi. Bioi, jakinda ere, berdin bazaigu. Hiru. Jakitun eta ezaxola, bistakoa bada nola jokatu. Lau. Biok jakitun, ezaxola eta eroso, korapilori gabe etxeratzen bagara. Bost. Eroso eta korapilorik gabe etxeratu eta sekula berriro honetaz hitz egiten ez badugu, esadazu gezurra".



Eleberriaren azala. SUS ARGITALETXEA

Hainbat hari, eta "obsesio" nagusi bat: begirada. "Begirada non, noiz eta nola kokatzen dugun, aldatu egingo da ezinbestean ikusten duguna. Baina hautatu ote liteke aldiro nondik eta nola begiratu?", galdetu zuen egileak, aurkezpen ekitaldian.

EUSKARA

"Familietan euskararen transmisioa egitea funtsezkoa da gure hizkuntzak biziraute ko"

Buruntzaldeko udaletako euskara zerbitzuek garbi daukate haurrak txikitatik euskaraz hezteak bermatzen dituela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta aspalditik ari dira bide horretan Çlanean. Besteak beste, haur jaioberri guztien familiei ematen diete opari sorta, euskararen transmisioan laguntzeko materialarekin



Familien arteko transmisioa euskaraz egiteko baliabideak. BURUNTZALDEA

Buruntzaldea EUSKARA

Euskararen transmisioa familiaren bitartez eman dadin errazteko, hogei urte baino gehiago daramatzate lanean Buruntzaldeko sei udalek. 2003an hasi zuten bide hori eskualdeko udaletako euskara zerbitzuek, Andoainen, Astigarragan, Lasarte-Orian, Hernanin, Urnietan eta Usurbilen; eta bide horrek ez du etenik izan. Alderantziz, urte hauetan guztietan egin dute lan, gurasoak jabetu daitezen euskararen transmisioan zer garrantzi duten.

Nabarmendu dute "funtsezkoa" dela familietan euskararen transmisioa egitea, "gure hizkuntzaren biziraupenerako". Izan ere, diote haurrak txikitatik euskaraz hezteak bermatzen dituela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta horrek, aldi berean, sustatzen duela euskararen normalizazioa.

Ekimen ugari

Bide horretan, gurasoak dira "haurraren lehen erreferenteak", eta eragin handia dute hizkuntzaren transmisioan. Hori balioan jartzeko eta "etxeetan geure egiteko", hainbat ekimen jarri dituzte martxan eskualdean, modu bateratuan. Besteak beste, eskaini dituzte hitzaldiak, sortu eta gauzatu dituzte egitasmo berezituak ikastetxe nahiz eragileekin batera, eskura jarri dituzte informazio eskuorriak eta gidak, eta harrera saioak egin dituzte haur jaioberrien familiekin.

Baina sentsibilizazioaz gainera, euskara indartzeko ere egin dituzte hainbat ekimen euskara zerbitzuek, eta ari dira horretan oraindik ere, sei herrietan: gurasoentzako euskara eskolak, familientzako lantegiak, GurasoLagun proiektua, begiraleentzako formazioa...

Guraso berrientzako opariak

Euskara indartzeko ekimen horietako bat da sei udalerrietan, haur jaioberrien familiei opariak egitea. Zehazki, opari sorta bat daukate prestatuta, guraso berriei ematen dietena: haur kantak, jolasak eta esapide erabilienak dauzkan liburuxka bat, *Ongi etorri jaioberri!* karpetatxoa, hozkailuan jartzeko imana (eguneroko hitz eta espresioekin), eta *Hazi Hezi* aldizkariaren alea.

Gainera, *euskara.buruntzaldea.eus* webgunean ere badago material gehiago: jolasak, esapideak, kantak...

Opari horiek helburu dute euskararen transmisioa sustatzea, eta baliabide praktikoak dira "gurasoen eta haurren euskararen erabileran eragiteko".

Baliabide eta material horien guztien berri jaso dugu azpiko koadroetan.



LIBURUXKA TOLESGARRIA

Koloreak, animaliak eta zenbakiak ikasteko baliabideez gain, liburuxkak **haur kantak, jolasak eta esapide erabilienak** jasotzen ditu. Gainera, beste liburuxka txiki baten bitartez, aholkuak ere eskaintzen dituzte gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera egokituta, euskararen transmisioan laguntzeko.



'ONGI ETORRI JAIOBERRI!' KARPETATXOA

Haur jaioberrien familiei ematen zaizkien opari eta baliabide guztiak karpetatxo batean bilduta eskaintzen dizkiete; eta karpetan bertan, mezu hauxe ageri da: 'Ongi etorri! Zorionak zure haurraren jaiotzagatik! Mezu hori, baina, hamabost hizkuntzatan idatzita ageri dela zehaztu dute.



HOZKAILUAN JARTZEKO IMANA

Eguneroko esamolde ohikoenak jasotzen ditu, eguneko lau unetan sailkatuta: agurtzeko esamoldeak, otorduetan erabiltzekoak, egunean zehar baliatu daitezkeenak, eta gauekoak. Hozkailuan itsastekoa izanik, gurasoek begibistan izango dute edozein unetan, behar dutenerako erabilgarri.



'HAZI HEZI' ALDIZKARIA

Hik Hasi-k argitaratuta, aldizkari espezializatua da, gurasoei eta hezkuntzako profesionalei zuzendutakoa. Hezkuntzarekin, pedagogiarekin eta hazkuntzarekin lotutako gaiak jorratzen ditu aldizkariak. Aldizkariaren ale bana ematen diete guraso berriei.



WEBGUNEKO EDUKIAK

Buruntzaldea Euskaraz atarian (*euskara.buruntzaldea.eus*) beste hainbat baliabide daude eskuragarri: eskualdeko haur-eskoletako haurrekin grabatutako bideoak, liburuxkan jasotako kantak eta jolasak ikasi ahal izateko. Gainera, kultur agenda euskalduna ere ikusgai dago webgunean bertan, familiek gozatzeko euskarazko jarduerekin.

IÑAKI EIZMENDI ARSUAGAren GAKOAK

Hainbat urtez Ttakun Kultur Elkarteko teknikari izan ondoren, Ebete Hizkuntza Zerbitzuak sortu zuen 2007an. Ebetek baliabideak eta proiektuak garatzen ditu, haur eta nerabeen euskararen erabileran, gaitasunean eta motibazioan eragiteko; eta gaur egun erreferentea da eremu horretan. Iñaki Eizmendik berak eragile ezberdinekin egiten du lan: familientzako sentsibilizazio saioak, irakasleentzako ikastaroak, edota kiroleko eta eskola orduz kanpoko jarduerei begirako saioak eta proiektuak, besteak beste. Hainbat gidaren edukiak ere garatu izan ditu, eta zenbait ikerketatan hartu du parte. Oraingoan, hainbat gako ekarri dizkigu, familietako euskararen transmisioan laguntzeko.

Gozatu euskara ematen, eta heldu erabileraren erronkari

GOZATU EUSKARA EMATEN

Zuen seme-alabek euskara aberatsa izatea, familion ardura ere bada.

Zer da euskara aberatsa izatea? Edozein egoera eta harremanetan euskaraz (ere) eroso aritzeko gai izatera iristea: lagunartean, ikasketetan, helduekin harremanean, kirolean, aisialdian...

► Eskaini euskara etxetik: euskalduna bazara, jolastu hizkuntzarekin (hitz egin, abestu, ipuinak irakurri... zenbat eta gehiago, hobe!). Euskaraz ondo ez badakizu edo gutxi gutxi baldin badakizu, zaindu zuen hizkuntza eta eskaini euskara eguneroko esamoldeen, abestien eta jolasen bidez.

► Zaindu etxean euskarak duen lekua: euskara entzun eta bizitzeko aukera izan dezatela. Giroan egon dadila euskarazko edukien bidez: musika, ipuinak, aldizkariak... Eta zuek ere egin euskarari lekua etxean: irratia, prentsa, telebista...

► Eskaini ahal duzuen euskara guztia ingurune hurbilean. Bereziki, eskolaz kanpoko jardueretan: euskarazkoak hautatu, eta euskararen presentzia eta erabilera zaindu ditzatela eskatu. Erabiliz garatzen da gaitasuna.

HELDU ERABILERAREN ERRONKARI

Lagundu diezaiegun lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskara erabiltzeko benetako aukerak izaten.

Zer da erabileraren erronka? Euskara erabiltzea ez da aukera soil bat, ibilbide baten ondorioa izaten da. Lagundu txikiak direnetik ibilbide indartsua izaten.

► Eredu indartsuak eskaini: euskaldunon kasuan, ikus dezatela euskarak balio dizuela eguneroko bizitzan. Benetako Ahobizi edo Belarriprest bazarete, eredu bikaina eskainiko diezue seme-alabei.

► Bizipenak eta erreferenteak eskaini: euskaraz diren bizipenak eta erreferenteak behar dituzte euskara balio indartsuekin lotzeko. Eskolaz kanpoko jarduerak oso lagungarriak dira.

► Euskaraz bizi diren talde eta giroetan parte hartu edo harremanetan jarri: euskarazko ekitaldietara joan (zinema edo antzerkia, adibidez) eta euskararen aldeko ekitaldietan parte hartu (Korrika, Euskararen eguna edota Euskaraldia).

BURUNTZALDEA EUSKARA

Hiru multzotan banatuta, hainbat gako plazaratu ditu Ebete Hizkuntza Zerbitzuakeko Iñaki Eizmendi Arsuagak, familietan euskararen transmisioa eman dadin laguntzeko eta errazteko.



Iñaki Eizmendi Arsuaga, Ebete Hizkuntza Zerbitzuaken sortzailea.

ESKOLAK BADU ARDURA, BAINA MUGAK ERE BAI

► Lagundu eskolari hizkuntzak irakasteko bidean: etxetik eta ingurune hurbiletik euskara asko eskaintzea familion ardura da, eta eskolak mugak ditu euskara aberatsa eskaintzera begira.

► Euskararen erabilerarekiko interesa erakutsi: galdetu irakasleekin egiten duzuen bileretan euskararen erabilerari buruz, eta kontuan izan beraien aholkuak.



Hitzaldi-tertuliara gonbidatu zituzten adituek azalpen interesgarriak eman zizkieten bertaratutako herritarrei. TXINTXARRI

GIZARTEA

Bazterkeriatik gizarte inklusiora igarotzeko gakoak eta erronkak partekatu dituzte

Lau ikasturte daramatza Borobilean Elkarteak pil-pilean dauden gaiak lantzen

Iñigo Gonzalez Sarobe

Munduan, herrialdean, udalerrian edota auzoan bertan pil-pilean dauden gaiak ez dira falta baina beti ez da erraza horien bueltako ganorazko hitzaldi-tertuliak antolatzea, horietara bertaratzen direnei testuingurua ulertzen eta hausnarraraziko dien gonbidatu adituak eta arituak ekarrita, gainera. Borobilean Elkarteak lau ikasturte daramatza hori egiten eta Ixiar Arteaga taldekideak adierazi zuenez, orain arteko guztietan lortu dute, baita hilaren 18an aurrera eramandakoan ere. "Egunen bateak kontatuko dizuegu sekretua zein den".

Dozenaka herritar elkartu ziren *Oriarte Landaberri institutuko musika gelan, Bazterkeriatik gizarte inklusiora. Egungo gakoak eta erronkak* hitzaldian parte hartzeko. Aurreneko zatian, entzule gisa, hiru gonbidatuek esateko zutena barneratzeko: Malaak Lazaar gizarte langilea eta Bizi-Lagunak elkarte sortu berriko lehendakaria; Deusto Unibertsitateko irakasle eta politologo Felix Arrieta; eta gizarte behargin izateaz gain ekintza testuinguruak gainbegiratzen dituen Jose Barreiro. Zarautz Oinarrian proiektuaren koordinatzaile Oihan Agirretxe izan zuten aldamenean; berak egin zituen aurkezle eta koordinatzaile lanak. Eta zer-nolako egoerak eragiten dituzten Borobileanek antolatutako hitzaldiek batzuetan: Arrieta beste hiruen irakasle izan zen Deuston, gizarte langile izateko ikasten ari zirenean.

Baztertutakoen errealitateaz

"Gaur egun bazterkeria egoeran dauden pertsonen errealitatea zein da?". Agirretxek hori galdetu zien Arrietari eta Barreirori. Etimologiari heldu zion aurrenekoak, bazterkeria hitzaren jatorriari: "*Bazter*-ek esan nahi du albo batean egotea, eta *-keria* atzizkiak kutsu negatiboa du euskaraz, begi onez ikusten ez ditugunei erreferentzia egiten dielako. Horrek erakusten digu gizarteak nola ulertzen duen kontzeptua, hizkuntzak eraikitzen ditu pertzepzioak". Esandakoari gogoeta hau gehitu zion: "Nola ikusiko ditugu pertsona horien egoerak, hasieratik bazterrean badaude? Horiek ikusarazteko errebindikazio ekintza gutxi daude".

Barreirok zenbait adibide praktiko jarri zituen eta azpimarratu zuen uste duguna baino gertuago dagoela bazterkeria, "edonork" paira dezakeela. Horrekin batera, adierazi zuen horrela bizi diren pertsonengan "eragin izugarria" izaten dutela prozesuek eta erasan egiten dutela eurekiko duten konfiantza. "Aurrenekoz kalean lo egin eta hurrengo egunean nire bulegora etorri zen pertsona batek esan zidan lan elkarrizketa bat zuela egun horretan bertan baina ez zela joan, beste edonor baino gutxiago sentitzen zelako".

Berriki egindako Gradu Amaierako Lanari buruz hitz egin zuen Lazaarrek. Emakume migratuengan jarri du fokua eta gizarte langintza aztertu du intersekzionalitatetik. Gizarte identitatearen ardatz desberdinak nola gurutzatzen diren aztertzen du teoria eta tresna analitiko horrek eta, beraren hitzetan, "funtsezkoa" da, faktore askogatik baztertuak izaten diren andre horien kasuak ez sinpletzeko eta behar duten laguntza emateko. Horrekin batera, aldarrikatu zuen "subjektu aktibo" gisa ikusi behar dituela gizarteak: "Euren erabaki propioak hartzeko gaitasuna duten pertsonak dira".



Emiliana, loreak eskuetan, senidez eta udal ordezkariz inguratuta. L-O UDALA

GIZARTEA

Emiliana Carrero Ignacio herritarrak 100 urte bete ditu

Extremaduran jaiotako emakumeak sei hamarkada daramatza udalerrian bizitzen familiarekin batera

Txintxarri

100 urte bete zituen Emiliana Carrera Ignacio lasarteoriatarrak hilaren 12an, ostegunarekin. Alabarekin batera ospatu zuen mendeurren berezi hori, baita udalaren opari bat jaso ere; hots, lore sorta bat, Agustin Valdivia alkateak eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak emanda. Protagonistak adierazi zuenaren arabera familiarekin ospatuko du aurrerago, beste behin.

Extremadurako La Pesga herri txikian jaio zen. Lehenengo, bere alabarik zaharrena etorri zen udalerrira haurrak zaintzeko asmoz, osabaren eta izebaren etxean bizi bitartean. Senarra Suitzara joan zen lana zela-eta, garai hartan. Extremaduran geratu zen Carrera Ignacio gainerako haurrekin. Denboraren poderioz, familia osoa lekualdatu zen Lasarte-Oriara. Dena den, ez zuten galdu jaioterriarekiko lotura, eta oporretan itzultzeko ohitura izan dute sei hamarkada hauetan.

Zazpi seme-alaben ama da Emiliana Carrera Ignacio: Marce, Mari Carmen, Matilde, Tina, Isabel, Chema eta Carlos. Urteekin batera, familia handitu egin zaio, eta hamar biloba eta hamaika birbiloba ditu.

Urtebetetzearen harira, mende honetan bizitakoak gogoratu zituen herritarrak. Adierazi zuen asko aldatu dela gizartea urte hauetan. Gaztaroko oroitzapenak ere kontatu zituen; arropa ibaian garbitzen zuenekoa eta familiarekin baterako oroitzapenak, hain zuzen.

Eguneroko ariketak

Era berean, gaineratu zuen eguneroko ohiturei eusten diela. Esate baterako, arnasketarako eta mugikortasunerako ariketak egiten ditu gosaldu ondoren. Hori ez ezik, paseatzera ateratzen da, goizez zein arratsaldez. Horrekin batera, aldizkariak irakurtzea gustatzen zaio, eta tarteka idaztea ere bai. Baina batez ere lagunekin elkartzea, solasean aritzea eta eguneroko une txikiak disfrutatzen ditu.

Hori horrela, tarte atsegina igaro zuten senideek, udal ordezkariak eta Carrerok berak. 100 urte betetzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, nahikoa meritu bada iristea bera ere, eta are gehiago Emilianak ekitaldian erakutsi zuen sasoiarekin. Luzaroan horrelaxe jarraitzea opa diogu herrikideari.

Eguneroko ohiturei eusten die Emilianak: goizez zein arratsaldez irteten da paseatzera

HEZKUNTZA


Munduari begira jarri dira Oriarte Larrekoetxeko ikasleak

Munduko Gatazkak irakasgaiko taldea - Txintxarri

Hankaz gora dago mundua eta edonon gertatzen ari dena ulertu ahal izateko beharrezkoa da ongi informatzea, ikuspuntu kritikoa garatzeko baliabideak eskuratzea eta norberaren iritzia argi azaltzeko gai izatea. Hori guztia (eta gehiago) lantzen ari dira Oriarte Larrekoetxe institutuan ikasten duten 1. Batxilergoko hamalau ikasle, Nora Muñoa Guenaga irakaslearekin batera, Munduko Gatazkak izeneko irakasgaian.

Gaur egun pil-pilean dauden gatazka ugari landu dituzte eta horiek testuinguruan jartzeko atzera ere begiratu dute asteartetan eta ostiraletan egiten dituzten saioetan. Teoria barneratuta, praktikara eraman dute ikasitakoa eta hamasei iritzi artikulu prestatu dituzte, zazpi astetan TXINTXARRI aldizkariaren paperezko orrietan zein *txintxarri.eus* webgunean argitaratzen ari garenak. Ikasturte hasieran gurekin jarri ziren harremanetan lankidetza egitasmo bati ekitea posible zen ala ez aztertzeko, eta, datozen asteetan ikusiko (eta irakurriko) duzuenez, pozarren ari gara.

Hirugarren argitalpen honetara ekarri ditugu Iria Touriñok eta Iraide Olallak prestatutako iritzi artikuluak. Afganistan herrialdearen egungo egoera landu du lehenak; bigarrenak, berriz, urriaren 12ko ospakizunaren (Hispanitatearen eguna) atzean dagoena.



Munduaren egoera, grafikoki. ORIARTE

IRITZI ARTIKULUA

Harrapatutako herrialdea



IRIA TOURIÑO
ORIARTEKO 1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gaur egungo gatazkak ulertzeko, iraganeko gatazkak ere begiratu behar dira. Horren adibide bat Afganistaneko gerra da, oso odoltsua izan zen, Afganistaneko gatazka hamarkada asko luzatu zen eta ondorio oso larriak ekarri zituen, batez ere, emakumeentzat. Nire ustez, herrialde boteretsuen interesek ondorio larriak sor ditzake beste herrialdeetan eta gainera, gehien sufritzen duten pertsonak biztanle arruntak dira.

Gerra hau, Gerra Hotzarekin lotuta dago. Garai hartan mundua bi blokeetan banatuta zegoen; alde batetik, bloke kapitalista zegoen Amerikako Estatu Batuak (AEB) buru zena; eta beste aldetik, bloke komunista zegoen Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) buru zena. 1979an SESBek Afganistan inbaditu zuen, bertako gobernu komunistari laguntzeko helburuarekin. Baina Afganistaneko iraultza komunista gelditzeko, AEBk esku hartu zuen, talde islamistak finantziatuz eta armatuz, SESBen aurka. Horrela, Afganistan bi superpotentzien arteko gatazkaren parte bihurtu zen.

Bestalde, gerra honek hamar urte iraun zituen, gutxi gorabehera. Eta 1989an SESB gatazkatik erretiratu zen, baina ez zen bakea bermatu, talde armatuen arteko gerrak jarraitu zuelako. Gerra zibilaren ondoren, 1996an, Talibanek, Afganistango talde armatu islamista batek, Kabul hiriburua inbaditu eta beraien kontrolpean jarri zuten. Haien helburua lege islamiko zorrotzak ezartzea zen. Haien agintean emakumeen eta nesken eskubideak murriztu zituzten eta haien askatasuna mugatu zuten.

> **"Ez zen beharrezkoa gatazka hau sortzea, elkarrizketaren bidez gauzak konpon daitezkeelako"**

Ondorioz, 2001eko irailean, AEBk eta bere aliatuek Afganistan berriz inbaditu zuten. Beraien helburua Al-Qaeda erakunde terroristaren aurka egitea eta Talibanak boteretik kentzea zen. Al-Qaeda talde terrorista islamista bat da, Osama bin Ladenek sortua, eta bere helburua eraso terroristen bidez bere ideiak zabaltzea zen. 2001eko irailaren 11n, talde horrek AEBn atentatuak egin zituen. Hasiera batean, Talibanen agintea erori egin zen eta gobernu berri bat ezartzen saiatu ziren. Era berean, Talibanek erresistentzia egin zuten AEBren kontra, eta gatazka hogei urtez luzatu zen. NATOko herrialdeek ere parte hartu zuten, baina azkenean, Talibanak ez zituzten garaitu; horregatik, 2021ean AEB erretiratu egin zen.

Ez dago dudarik, gatazka honek ondorio larriak eduki dituela. Gatazka honek milioika biztanle hil ditu eta etxe asko suntsitu ditu. Gainera, askok beraien etxetik alde egitera behartuta ikusi ziren. Baita ere, herrialdearen garapen ekonomikoa zaildu zuen eta pobrezia handia ekarri zuen. Ez hori bakarrik, 2021ean emakumeei hezkuntza debekatu zitzaien, ezin dute ez ikasi, ez unibertsitatera joan.

Amaitzeko, ikusi dugu gatazka honek ekarri dituen ondorioak oso larriak izan direla, jende asko hil zela, etxerik gabe gelditu zirela eta emakumeak askatasunik gabe gelditu zirela. Nire iritziz, ez zen beharrezkoa gatazka hau sortzea, elkarrizketa baten bidez gauzak konpondu daitezkelako. Gainera, gatazkek erakutsi digute gerrak amaitzea ez duela beti bakea ekartzen. Eta hau ikusita, biztanleen ongizateari begiratu behar zaiola eta horri lehentasuna jarri behar zaiola uste dut. Bestela, jende asko hiltzen baita errurik gabe. Bukatzeko, emakumeek asko sufritzen jarraitzen dute. Ezin dute ikasi, beti tapatuta joan behar dute, ezin dute hitzik egin eta gauzak egiteko gizonekoen baimena eduki behar dute. Horregatik, hau oso larria da, baina gizartean ez zaio ikusgarritasun asko ematen, eta garrantzitsua da.

IRITZI ARTIKULUA

Inbasioa edo ondorioa?



IRAIDE OLALLA CHINCHILLA
ORIARTEKO 1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gaur egun, immigrazioaren gaia oso ohikoa da, batez ere, Ceutan gertatzen ari denarekin. Baina horri buruz hitz egin al dezakegu testuinguru historikoari erreparatu gabe?

Hasteko, dakigun bezala, urriaren 12an "Hispanitatearen eguna" edo Frankok ezarri zuen bezala, "Arrazaren eguna" ospatzen dute. Egun horretan ospatzen dena ez da aurkikuntza bat, konkista bat baizik. XV. mendean europarrak Amerikara iritsi ziren, bertakoak esklabizatu eta baliabide guztiak ustiatu zituzten.

Dena den, ez gara hain atzera joan behar horrelako gertakari bat aipatzeko. 1956an deskolonizazio prozesuan, Marokoko protektoratua Espainiatik independizatu zen eta Saharan zituen koloniak eskatu zizkion Espainiari. 1976an, Espainiak Saharako koloniak utzi zituen, baina gobernatuko zuena nor izango zen zehaztu gabe utzi zuen, eta orain arte Sahara, Afrikako lurralde gatazka handienetako bat izaten jarraitzen du. Maroko ere, hainbat urtez Espainiaren menpe bizi eta gero, egoera kaxkar batean geratu zen. Horrelako eta beste gertakari askoren ondorioz, hainbat herrialdeetako jendea hona etortzera behartuta ikusi da.

> **"Urriaren 12an ospatzen dena ez da aurkikuntza bat, XV. mendeko konkista bat baizik"**

Gainera, ez da soilik teorian ikusten den gauza bat. Nabaritu ahal diren ondorioak daude. Adibidez, Espainian dauden atzerritar gehienak Hego Amerikatik etorritakoak dira. Zergatik? Gure hizkuntzetako bat hitz egiten dutelako, lehen aipatu dudan bezala, duela 500 urte Espainiak haien kulturak eta hizkuntzak zapaldu eta espainiarrak inposatu zituztelako.

Beraz, ez, immigrazioa ez da bat-batean etorritako zerbait, ez da jendearen kapritxo bat, ez da gure herrialdeaz aprobetxatzeko ezer... Ez da inbasio bat. Ondorio bat da. Gure arbasoen ekintzen eta erabakien ondorio bat.

ZAZPI ASTETAN MUNDUKO GATAZKEI BURUZKO HAMASEI ARTIKULU ARGITARATUKO DITUGU. GURE ATARI DIGITALEAN ATAL BEREZIA SORTU DUGU, PIEZA GUZTIAK BILTZEKO. QR KODE HAU ESKANEATU!

AUTOMOBILISMOA

Euritan maisuki gidatuta amaitu du denboraldia Aitor Manso pilotuak, Madrilen

Datorren sasoian Espainiako txapelketa irabaztea da herritarraren ametsa

Txintxarri

Euritan gidatu beharra arazo izan daiteke pilotu askorentzat, baina ez Aitor Manso herritarrarentzat. Hilaren 14an itxi zuen denboraldia Madrilen, XIX. El Vellon igoeran, eta baldintza klimatiko horien pean parte hartu behar izan zuen. Bada, proba bikaina egin eta bere kategorian irabazteaz gain sailkapen orokorra ere poltsikoratzeko 249 ehuneko falta izan zitzaizkion. "Euritan konpetitzea asko gustatzen zaigu. Gabriel Gutierrezek auto hobea du eta aurten lau bat segundo atera izan dizkigu lasterketa bakoitzean, baina aurrekoan irabaztetik oso-oso hurbil geratu ginen". Pilotu lasarteoriatarrak Talex M4 ibilgailua gidatzen du.

Amaitu berri den denboraldia oso emankorra izan da Mansorentzat. Madrilgo txapelketan garaile izan da 10. kategorian eta sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu du. Euskadikoan, berriz, bietan nagusitu da. Gainera, Espainiako Mendi Igoeretako AUTOhebdo SPORT txapelketako azken jardunaldian, irail amaieran Onil-en (Asturias) jokatutakoan, 3. kategoriako bizkorrena izan zen. Bere autoa, Talex M4a, homologatzeko zegoenetako bat izan zenez, parte hartu zuen baina pilatutako puntuak ezin izan zizkion sailkapen orokorrera gehitu.



Aitor Manso, El Vellon igoera gauzatzen. PRODUCCIONES BERZAL

Espainiako txapelketa, amets

Hori horrela izanik ere, Mansorentzat eta bere taldearentzat saio bikaina izan zen, lehiaketa horretan ere onenen pare ibil daitezkeela erakutsi zutelako. Bada, datorren denboraldiko xede nagusiak horrekin zerikusia duela azaldu du pilotuak: "Espainiako txapelketa irabaztea da gure helburua, bai ala bai. Are gehiago, hori da nire ametsa".

Espainiako txapelketa irabazteko eta beste lorpen askoz gehiago erdiesteko prestatuko da Manso datozen hilabeteetan. Zeregin horretan, jakina, ezinbestekoak dira bidelagun dituen taldekideak eta babesleak: Ferdoux Estructuras S.L., Andamios Laister, Construcciones Aizpurua Unanue, Etxezarreta harategia, Toyota eusko auto eta Lexus ikigaikars.

PILOTA

Gipuzkoako txapelketari eta Negua sariari ekin diete Intzako pilotariek

Txintxarri

Irailetik daramate lehiatzen Intza Kirol Elkarteko pilotariek kategoria ugaritan, baina joan den asteburuan bi konpetizio berriri ekin zieten: Eskuz Binakako Negua Sarian, Nagusien 2. Mailan 22-16 galdu zuten Diaz de Guereñuk eta Urdanpilletak, Intxurreko bikote Arandia eta Mugicaren kontra. 2. Mailako Kadeteek, berriz, 22-20 irabazi zuten Gaztelekuren kontra. Intzaren izenean jokatu zutenak Lasa eta Lopez izan ziren.

Banakako Gipuzkoako Txapelketa eta Binanako Negua Saria. Aurreneko jardunaldiko hiru neurketatatik bi Michelingo kirol gunean jokatu zituzten baina etxean aritu zirenek ez zioten horri abantailarik atera. Kadeteen 1. Mailan, Jauregik 13-18 galdu zuen Arrietaren (LAPKE) kontra; eta Atorrasagastik ezin izan zuen Izagirre (LAPKE) mendean hartu, 7-18 galdu baitzuen. Adin tarte horretako 2. Mailan, Hernaniko jokalari Azpeitiak 18-12 irabazi zion Maiz herritarrari.

Bestalde, trinket modalitateko Izarkom Sarian ere murgildu dira Intzakoak. Irurako Ametsa kantxan jokatu zuen Artetxek eta hasi eta buka nagusitu zitzaion Labantzuko Unanueri, 40-16.

Azkenik, Errendimendu modalitatean konpetitzen ari diren infantilek, Jauregik eta Ibarzabalek, Ipentza (Intxurre) eta Orha (Aizkorpe) garaitu zituzten. Biek ala biek orain arte jokatutako partida guztiak irabazi dituzte; bost eta lau, hurrenez hurren.



Jauregi, pilota jotzear. TXINTXARRI

FUTBOLA

Ostadar da talde indartsuena



TXINTXARRI

Gorengo Mailako lehen multzoko bi ekipo onenek neurtu zituzten indarrak Michelin kirol gunean, hilaren 14an: Ostadarrek eta Astigarragako Mundarrok. Aurreikus zitekeen moduan neurketa orekatua izan zen eta markagailuan aurreratu zirenek poltsikoratu zituzten puntuak, urdin-beltzek, Ugaitz Agirre erdiko atzelariak sartutako golari esker. Yonatan Monroy-ren taldeak 23 puntu ditu eta lehen multzoko liderra da, Errenteriako Touring bi puntutara duela.

Bolada ezin hobean daude eta jarraian irabazi dituzte azkeneko bost partidak, horietan guztietan gol bakar bat jaso gabe. Aurrean jokalari biziak eta kalitatezkoak dituztela jakinda, orain arte defentsan erakusten ari diren sendotasuna mantentzea funtsezkoa izango da lidertzari eusteko. Larunbat honetan Urnietara joango dira, udalerri horretako ekipoaren aurka eskualdeko derbia jokatzera. 16:00etan hasiko da norgehiagoka.

ERRUGBIA

Europako txapelketa irabazi du Eneko Sanchez lasarteoriatarrak

Txintxarri

Eneko Sanchez errugbi jokalari lasarteoriatarrak Europako txapelketa irabazi du berriki Espainiako M18 selekzioarekin. Beltzak eskolaren harrobian hazitako gazteak hasieratik jokatu du Georgiaren aurkako finala; 23-17 gailendu dira Raul Perezek entrenatutako kirolariak. Talde horretako kideek bigarren urtez jarraian altxatu dute garaikurra, iaz ere Georgiaren aurka nagusitu baitziren. Orduko partida erabakigarriaren emaitza 16-11koa izan zen.

Sanchezen herrikide diren Beltzak eskolako kideak pozarren daude jokalari gazteak lortutako balentriarekin eta zoriondu egin dute horregatik. Espainiako selekzioarekin egindako lana amaituta, herritarrak Aviron Bayonnais taldearekin konpetitzen jarraituko du denboraldi honetan.

Bestalde, TXINTXARRI-ren erredakziora bidalitako oharra baliatu dute gogorarazteko gabonetako saskiaren errifak salgai jarri dituztela kolaboratzaiile diren establezimenduetan. Zuzendaritza taldeko kideek zein jokalariek ere salduko dituzte txartelak. Aurtengo otarrak zer daraman ikusi nahi dutenek Tiburtzio Artizar tabernara joan behar dute, han jarri baitute ikusgai.



Eneko Sanchez, garaikurrarekin. BELTZAK

TOPAKETA

Elkargune erraldoia izan da Okendo plaza

II. Jardunaldi Inklusiboa aurrera eraman dute Okendo plazan eta inguruetan. Partaideek egindako ekimenek herritar ugari erakarri dituzte



Huarteko zanpantzarrak. TXINTXARRI



Nagusilan elkarteko hiru kide. TXINTXARRI

Txintxarri

Iaz hasitakoari eutsita egin zuten II. Jardunaldi Inklusiboa hilaren 14an. Orotariko pertsonei harrera egingo dion Lasarte-Oria sortzeko asmoz, gizarte inklusioa sustatu zuen ekimenak. Horretarako, aniztasunaren erakusleiho izan zen Okendo plaza.

Irekiak eta doakoak izan ziren ekimen guztiak eta den-denei egin zieten abegi ona herritarrek. Hasteko, ehundaka herritar animatu ziren Upsala mendi elkarteak, Garaionak eta Udalak prestatutako martxa inklusiboarekin bat egitera. Gogotsu abiatu ziren Benedika mendiruntz. Azken egunotako eguraldia zela-eta, kontu handiz ibili behar izan zuten ibilaldian.

Bien bitartean, jolaserako gune handia izan zen enparantza nagusia. Izan ere, egokitutako kiroletan aritzeko beta izan zuten lasarteoriatarrek hainbat eragileri esker. Esgrima, mahai-tenisa, slaloma, 3x3 saskibaloi partidak. Hori ez ezik, etxeko txikientzako ariketak ere prestatu ziren; besteak beste, marrazteko mahaiak eta laguntzarako txakurrak gertutik ezagutzeko (eta laztantzeko) saio laburrak.

Ibiltariak ailegatzerakoan, harrera egin zieten Huarteko zanpantzarrek. Kale Nagusitik barrena etorri ziren Okendo plazaraino nafarrekin batera. Gogotik gozatu zuten eurek sortutako soinua eta ikuskizuna. Gainerako herritarrek ere ez zuten gertutik ikusteko eta telefono mugikorrarekin grabatzeko aukera galdu nahi izan.

Ritmo Activoko dantzariek ikuskizun laburra eskaini zuten Okendora bueltatzerakoan. Euren giro bikainarekin kontagiatuta, zanpantzarrak ere ausartu ziren aldakak mugitzera, beste behin.

Itxiera polita izan zuen aurtengo jardunaldi inklusiboak. Ekimenaren "arrakasta" dela-eta, datorren urtekoa prestatzen hasi dira dagoeneko partaideak.

Horrekin guztiarekin batera, informaziorako postua ipini zuten hirugarren sektoreko elkarte eta erakunde ugarik: Ortzadar, Begi-sare, Aspanogi, Acabe, Domus, Andade, DYA, Hegalak, Lekanea, Fortuna, EDE Fundazioa, EAGI Eraikuntza Eskola, Lasarte-Oriako EPA eta Ondarretako Osasun Mentalerako Zentroa. Herritar dezente gerturatu zen euren proiektuak gertutik ezagutzeko gogoz.



Talde argazkia atera zuten II. Jardunaldi Inklusiboko partaide guztiek. TXINTXARRI



3x3ko saskibaloi partidak egin zituzten, Okendo plazan. TXINTXARRI



Kirolari bat. TXINTXARRI



Dantzan jarri zuen Okendo plaza Ritmo Activok. TXINTXARRI




Dozenaka herritar batu ziren Mendi Martxa Inklusiboan. TXINTXARRI

HIRIBUSA

Hiribusa





Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

SUDOKUA

4	9	3			8			
				6	7		2	
6			4	3				8
					4		8	5
			2				7	
	8				6			
	6	8			3		5	
	4	9						
5					1			2

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINTZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 20 KNIESE
LARUNBATA, 21 KNIESE
IGANDEA, 22 KNIESE
ASTELEHENA, 23 KNIESE
ASTEARTEA, 24 DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 25 DE MIGUEL
OSTEGUNA, 26 LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, HERNANI / 943-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK

Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

BABESLEA

LASARTE-ORIA
UDALA

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundu:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Jexux Artetxe, Aizpea Amas, Maitane Rebe eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez, Udane Guisado eta Manex Azkonobieta.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 WhatsApp: 646 82 44 66 publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | *txintxarri@ttakun.eus*

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA

- **Antzerkia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Taberna Paraíso, un año después* antzezlanaren emanaldia egingo dute Makelur antzerki taldeko kideek. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.
- **Agerraldia** Lasarte-Oriako Mugimendu Feminista eragileko kideek prentsaurrekoa egingo dute, Emakumeen Etxeko araudia zehazteko udalak abiatutako parte hartze prozesuaren harira. Ekarpenak landu dituzte eta, herritarrei aurkeztearekin batera, euren atxikimenduak bilduko dituzte. Okendo plaza, 19:00etan.
- **Topaketa** LOGA gazte asanbladako kideek kantu afaria antolatu dute. Afaltzera joaten direnek hauxe jango dute: bakailao tortilla, entsalada, txekor saiheskia eta postrea. Ondoren, herriko zenbait musikarik girotuko dute afalostea. Xirimiri elkartea, 21:00etatik aurrera.

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Udazken festa antolatu du Zabaleta Auzolan elkarteak. Hau izango da egitaraua: 10:30ean, auzoan barrena, memoriaren zuhaitzaren ekitaldia. Porrotx eta Marimotots pailazoen eskutik. Kalejira egingo dute auzoan barrena. 11:00etan, bigarren eskuko azoka irekiko dute. Amaitzeko, jatekoa eta edatekoa banatuko dute Zabaleta Auzolan elkarteko lagunek.

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Ibilgailu klasikoen jabeek topaketa aurrera eramango dute goizetik hasi eta iluntzera arte. Andatza plaza izango da gune nagusia baina herrian barrena ere ibiliko dira. Hau da egitaraua: **09:00etatik 11:00etara,** gidariei harrera, txartelen banaketa eta gosaria (Aitonak kafetegian; tiketa erakustea beharrezkoa da). **09:30etik 12:30era,** ibilgailu klasikoen erakusketa, Andatza plazan. **10:00etatik 14:30era,** haurrentzako zein helduentzako Scalextric txapelketa. DJ Pitxi-k girotuko du jarduera hori. **12:30ean,** topaketan parte hartuko dutenek ibilaldia egingo dute herrian barrena, antzinako zirkuitua zegoen tokira iritsi arte. **13:30ean,** sariak banatuko dituzte eta bermuta hartuko dute. Andatza taberna. **15:00etan,** Udaberri elkartean bazkalduko dute parte hartzaileek.
- **Musika** Santa Zezilia zaindariaren eguna ospatuko dute Alboka Abesbatzako kideek. San Pedro parrokia, 12:30etik aurrera. Meza amaitu ondoren elkarrekin bazkaltzera joango dira eragile horretako partaideak eta bazkideak.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Dino Familia* filma emango dute.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Topaketa ClasicoX elkarteak eta udalak ibilgailu klasikoen topaketa aurrera eramango dute goiz osoan zehar. Ekimenaren helburua da motordun garraiobide horiek duten balio kulturala ikusaraztea eta herritarrek bertatik bertara ezagutzea. Andatza plaza eta inguruak, 09:00etatik aurrera. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

ASTEAZKENA 25

LASARTE-ORIA

- **Mobilizazioa** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, elkarretaratzea aurrera eramango du. Okendo plaza, 12:00etan.

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatutako egitarauaren barruan, *Indarkeria digitalak, nanosfera eta beharrezko tresnak gazteen artean sortzen ari diren indarkeria mota berri horiei aurre egiteko* hitzaldia emango du Sortzeneko kide Sheila Melcon Lopezek. Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA

- **Bertso Astea** Imanol Lizardi III. Bertso Sariketa aurrera eramango dute. Bertsolari hauek parte hartuko dute: Duna Urteaga (Gipuzkoa), Urko Arakistain (Gipuzkoa), Adei Urbitarte (Gipuzkoa), Iradi Barrenetxea (Bizkaia), Jon Abasolo (Bizkaia), Maia Ortiz de Zarate (Araba). Gai jartzailea Irati Martinez izango da. Sarrera doakoa dela zehaztu dute antolatzaileek. Mirentxu, 18:00etatik aurrera.
- **Zinema** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Sacamantecas* filma emango dute Okendo Zinema Taldeko kideek. Sarrerek 6,10 euro balio dutela jakinarazi dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 21

GIZONEZKOEN GORENGO MAILA
- **Urnieta - Ostadar SKT**
16:00. Urnietan.

EMAKUMEZKOEN GORENGO MAILA
- **Segura Aizkorri - Ostadar SKT**
16:00. Alustiza, Seguran.

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Ostadar SKT - Amara Berri**
17:30. Michelin kirol gunean.

KADETEEN OHOREZKO MAILA
- **Ostadar SKT - Hernani CD**
12:00. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA
- **Ostadar SKT - Pasaia KE**
12:00. Atsobakar kirol gunean.

IGANDEA 22

JUBENILEN OHOREZKO MAILA
- **Mundarro - Ostadar SKT**
18:15. Zarkumendegi, Astigarragan.

JUBENILEN 1. MAILA
- **Texas - Ikasberri KE**
10:30. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

OSTIRALA 20

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
- **Gaintxu AFT - Eguzki Arkupe**
21:20. Bekoerrota, Lezon.

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Eguzki ISU - Sanpedrotarra FT**
20:50. M. Chourraut kiroldegian.

LARUNBATA 21

NAZIONAL LIGA, OHOREZKO J.
- **Eguzki CORPAChef - Santurtzi**
16:00. M. Chourraut kiroldegian.

GAZTEEN MAILA, JUBENILAK
- **Eguzki Avenida - Irun Futsal**
11:30. Michelin kirol gunean.

IGANDEA 22

KADETEEN MAILA
- **Eguzki Urarte - Eguzki Escalerilla**
11:00. M. Chourraut kiroldegian.

SASKIBALOIA

LARUNBATA 21

SENIOR 2. MAILA
- **Ostadar SKT - Oiarso SKT**
13:30. M. Chourraut kiroldegian.

JUNIOR PARTAIDETZA
- **Ostadar Alvite - San Juan Take**
11:30. M. Chourraut kiroldegian.

KADETE PARTAIDETZA
- **Ekintza - Ostadar Urdina**
12:00. S. Tomas Lizeoa, Donostian.
- **Eibar - Ostadar Beltza**
12:30. Ipurua, Eibarren.

IGANDEA 22

SENIOR 3. MAILA
- **Mondragon - Ostadar SKT**
16:20. Musakola, Arrasaten.

PILOTA

OSTIRALA 20

ESKUZ BANAKA, K 2. MAILA
- **Mundarro - Intza KE (Maiz)**
17:30. 1. partida. Txomiñenean.

ESKUZ, BINAKA, K. 3. MAILA
- **Mundarro - Intza KE**
17:30. 2. partida. Txomiñenea, Astigarragan.

ESKUZ, BANAKA, K. 1. MAILA
- **Ilunpe - Intza KE (Jauregi)**
18:00. 1. partida. Izarraitz, Azpeitian.

TRINKETA, ESKUZ BANAKA
- **Behar Zana - Intza KE**
19:30. 1. partida. Ametsa, Iruran.

IGANDEA 22

ESKUZ, BANAKA, K. 1. MAILA
- **Aretxabaleta - Intza KE (Atorrasagasti)**
11:00. 1. partida. Iturrigorri, Aretxabaletan.

ERRUGBIA

LARUNBATA 21

OHOREZKO B MAILA
- **Gaztedi - Donostia Rugby**
16:00. Gamarra, Gasteizen.

EUSKAL LIGA 1. MAILA
- **Zarautz/Beltzak - Arrasate**
16:00. Atsobakar kirol gunean.

14 URTEZ AZPIKOAK, GIPUZKOAKO LIGA
- **Zarautz/Beltzak - La Rioja/ Iruña**
11:00. Asti, Zarautzen.

IGANDEA 22

10 ETA 12 URTEZ AZPIKOAK
- **Beltzak errugbi eskolan eta Zarautzen jokatzen ari diren gaztetxoek jardunaldia izango dute.**
Puio, Donostian, 10:30etik aurrera.

TXIRRINDULARITZA

LARUNBATA 21

- **Luken Garmendia (Danena KE), Dario Gomez (Andoaingo Txirrindularitza Eskola) eta Xabat Martin (Danena KE) txirrindulariek Gipuzkoako Pista Txapelketa jokatuko dute.**
Donostiako Antonio Elorza Belodromoa.

ATLETISMOA

IGANDEA 22

- **Herriko zenbait kirolarik Donostiako Zurich Maratoia edota 10 kilometroko proba jokatuko dituzte.**
Donostian, goizean zehar.

Itxoitera eseri, eta denborarik ez egunkaria zabaltze...

HEMEN DA TOPO BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren gehiago asteburuetan

Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info **topo.eus**

euskotren

euskal trenbide sarea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE

IMANOL LIZARDI

BERTSOLARI GAZTEEN HIRUGARREN SARIKETA

AZAROAK 27
18:00 MIRENTXUN SARIKETA

ABENDUAK 2
15:15 KULTUR-ETXEKO AUDITORIOAN
EMANALDIA LH5 ETA LH6KO IKASLEENTZAT

ABENDUAK 3
18:30 JALGI TABERNAN
EARRA! BERTSO ESKOLAREN SAIOA

BERTSO ASTEA
LASARTE-ORIA
2026



LASARTE-ORIA
Tta kun Kultur Elkartea
LASARTEKO BERTSO ESKOLA